



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



2025

Liburutegien papera alfabetizazio mediatikoan



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Liburutegien papera alfabetizazio mediatikoan

› Aurkezpena

› 1. Alfabetizazio mediatiko eta informazionala testuinguruan

- › 1.1 Kontzeptuaren bilakaera
- › 1.2 Arazo kritiko bati emandako erantzuna
 - 1.2.1 Informazioaren integritatea eta desinformazioa, talkan dauden bi kontzeptu
 - 1.2.2 Posizio europarra
 - 1.2.3 Desinformazioarekin lotutako beste ekimen batzuk
 - 1.2.4 AMLa eskubideen berme gisa
- › 1.3 AMLa ekosistema baten zati gisa
 - 1.3.1 Komunikabideak
 - 1.3.2 Plataforma eta eduki digitalak
 - 1.3.3 Hezkuntza

› 2. Liburutegien papera

- › 2.1 Liburutegi publikoen papera
 - 2.1.1 Liburutegi publikoen funtzioa: eskubideak, sarbidea eta ezagutza
 - 2.1.2 Liburutegi publikoak eta AMLa
- › 2.2 Laguntza-programak eta proiektuak
- › 2.3 Erremintak, baliabideak eta gaitasunak
- › 2.4 AMLarako europar itun baterantz

› 3. Ondorioak

› Bibliografia

Laguntza teknikoa:
ICC – TEKNECULTURA UTE

Itzulpena:
LETE ITZULPENAK-
TRADUCCIONES S.L.

Diseinua eta maketazioa:
DIAGONAL 360°

**KULTURAREN EUSKAL
BEHATOKIA**

Donostia-San Sebastián kalea, 1
01010 Vitoria-Gasteiz - Álava
T. 945 016 947
kulturabehatokia@euskadi.eus

Aurkezpena

2024ko azaroan, EBko Ministroen Kontseiluko Gai Kulturaletako Batzordeak alfabetizazio mediatikoari eta liburutegien zereginari buruzko eztabaida egin zuen. Eusko Jaurlaritzak izan zuen eztabaidan parte hartzeko aukera, izan ere 2024ko bigarren seihilekoan Euskadik koordinatzen baitzuen Autonomia Erkidegoen jarrera.

Eztabaidako galderek zera planteatzen zuten, liburutegiek alfabetizazio mediatikoan eta irakurketa kritikoan duten papera, bai eta zerbitzu hauek eskaintzeko liburutegietako profesionalek behar dituzten baliabideak, eta konpetentzia eta gaitasunak ere. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak adierazi zuenez, “egiaztatuta dago alfabetizazio mediatikoko maila altu bat funtsezko faktorea dela herritarrek erabaki informatuak har ditzaten aro digitalean, demokrazia parte-hartzaile, moderno eta

inklusibo baterako aurretiazko baldintza izanik, desinformazioaren eta gorroto-diskurtsoen aurkako galga izateaz gain”. Testuinguru honetan, “liburutegiek paper erabakigarria betetzen dute alfabetizazio mediatikoan eta espiritu kritikoaren garapenean, elkarrizketarako baliabideak, hezkuntza eta espazio bat emanez”. Batzordearen aurrean izan zuen parte-hartzean, alfabetizazio mediatikorako Itun Europar bat proposatu zuen, autonomia-erkidegoen posizio amankomunaren fruitu gisa, liburutegiek ikaskuntzarako, ezagutzak eskuratzeko, sozializatzeko eta gozamenerako gune gisa dute paperari buruzko eztabaidaren esparruan.

Testuinguru komunikatibo gero eta suminduago batean, desinformazioz betea eta gorroto-diskurtsoek kutsatua, txosten honek alfabetizazio mediatikoaren kontzeptuaren gaineko gogoeta bat

eskaini nahi du. Horretarako, kontzeptuaren beraren garapena aztertzen da, gaur egungo formulaziora iritsi arte, nazioz gaindiko erakundeen alfabetizazio mediatikoaren sustapen-ekimenak identifikatzen dira eta liburutegiek joka dezaketen paperari buruzko gogoeta egiten da.

Lehen blokea alfabetizazio mediatikoa ulertzeko moduan izan den bilakaera aurkeztera bideratua dago, UNESCOren adierazpenen bitartez. Jarraian desinformazioa gaur egungo gizartean arazo kritiko bihurtzen duten gakoak planteatzen dira. Nazioarteko erakundeen kezka adierazten da, eta amaitzeko alfabetizazio mediatiko eta informazionala eratzen duen ekosistema deskribatzen da.

Bigarren blokea liburutegiek fenomeno honetan egin dezaketen ekarpena eta bete dezaketen papera azaltzera bideratuta dago,

ezagutza sustatzeko zerbitzuak direla kontuan hartuz.

Erronka itzela da desinformazioa, egungo gizartean hartzen ari den itxura kontuan hartuz. Ez da adibiderik falta. Zeregina erraldoia da, baina jabetu gara gai kritiko bat dela eta hasiak gara murrizteko bitartekoak jartzen. Liburutegiek funtsezko papera joka dezakete herritar kritikoak eta burujabeak gaitzeko zereginetan.

1. Alfabetizazio mediatiko eta informazionala testuinguruan

1.1 Kontzeptuaren bilakaera

Alfabetizazio mediatikoa urteetan zehar zabaltzen eta eraldatzen joan den kontzeptu bat da. Ideia dinamiko horretara hurbiltzeko modu bat zera da, UNESCOren definizioetara jotzea, munduan ideia hori sustatzeaz arduratzen den nazioarteko erakundea denez. Ikusiko den bezala, eraldaketa handiak bizitzen ari den ingurune batera zabaltzen eta egokitzen joan da kontzeptu hori. Horrela, bizitzan zeharreko ikaskuntzari eta gizartean parte hartzeari lotutako planteamenduetatik beste planteamendu batzuetara joan da, bitarteko digitalen inguruan sortutako arazoei erantzuten dieten gaitasunak barneratzen dituzten planteamenduetara, hain zuzen ere. Ikuspegia edo fokatzeari aldatzen da, errotik eraldatu dena testuinguru mediatikoa delako, bai eta hartatik eratortzen diren premiak ere, eta gainera,

etengabeko bilakaeran dago.

Alfabetizazio informazionalako kontzeptuaren hastapena (oraindik ez zen “mediatiko” terminoa erabiltzen) Grünwaldeko Adierazpenaren garaikoa da (1982). Adierazpenean azaltzen zenez, sistema politiko eta hezkuntza-sistemek herritarrek “komunikazioaren fenomenoak” ulertzea sustatu beharko lukete.

Ondoren, bere posizionamendua indartzen doa arian-arian, egiten diren adierazpenetan eta gomendioetan. Alfabetizazio informazionalako lehen adierazpenetan bizitzan zeharreko ikaskuntzarekin lotzen da, oinarritzko eskubide gisa ulertzen da eta bere asmoa, gizarteratzea helburu gisa edukita, pertsonak gaitzera bideratzen da, gizartean guztiz parte hartu ahal izan dezaten.

- **1982.** [Grünwaldeko Adierazpena](#). Komunikabideei buruzko hezkuntza eraginkor baten oinarriak planteatzen dira.
- **2003.** [Pragako Adierazpena](#). [“Informazioan alfabetizatutako gizarte baterantz”](#), Pragan egindako Alfabetizazio Informazionalako adituen bilera, zazpi kontinenteetako 23 herrialdetatik etorritako profesionalen partaidetzarekin. Kontzeptua termino hauetan planteatzen da, ezagutza eta partaidetza azpimarratuz:
“Alfabetizazio informazionalak zera biltzen du, informazio-premien ezagutza eta planteatutako arazo edo gaiei aurre egiteko informazioa identifikatzeko, kokatzeko, ebaluatzeko, antolatzeko, sortzeko, erabiltzeko eta komunikatzeko gaitasuna; Informazioaren Gizartean modu eraginkorrean parte hartzeko aurrebaldintza bat da, eta era berean,

bizitzan zeharreko ikaskuntzaren oinarritzko giza eskubidearen zati bat ere bada”.

- **2006. [Alexandriako Adierazpena](#)** alfabetizazio informazionalari eta bizitzan zeharreko ikaskuntzari buruzkoa, azken kontzeptu hori modu honetan definitzen delarik:
“Alfabetizazio informazionala bizitzan zeharreko ikaskuntzaren bihotzean bertan dago kokatua. Klase eta baldintza orotako jendea gaitzen du bere helburu pertsonal, sozial, okupazional eta hezkuntzakoak lortzeko asmoz, eraginkortasunez informazioa bilatzeko, ebaluatzeko, erabiltzeko eta sortzeko. Oinarritzko giza eskubide bat da mundu digitalean, eta nazio guztien gizarteratzea sustatzen du”.
- **2007. [Parisko Agenda](#)** edo hezkuntza mediatikorako 12 gomendio. Hezkuntza mediatikoaren ikuspegi zabala, inklusibo eta anizkuna azpimarratzen du, edozein bitarteko kontuan hartuz, haren izaera edo teknologia edozein delarik ere,

irakasleak eta gizarte-esferako beste eragile batzuk gaitzeko premia, bai eta ikerketaren eta haren hedapenaren premia ere.

2007/8an, UNESCOk urrats bat gehiago egin zuen ordura arte independente gisa ikusten ziren bi eremuak batzeko. 34. Konferentzia Orokorrean Alfabetizazio Mediatiko eta Informazionalaren kontzeptu konposatua hartu zen (aurrerantzean, AMI), gakoa konpetentzia instrumentalak eskuratzea bakarrik ez dela azpimarratzeko, baizik eta informazio-iturrien gaineko judizioak egiteko gaitasuna barne hartzen duela, bai eta komunikabideetan parte-hartzea zabaltzeko gaitasuna ere. Horrela, laneko eta eguneroko bizitzarako beharrezko konpetentzien (ezagutzak, trebetasunak eta gaitasunak) multzo konbinatu gisa ulertzea jotzen du. Kontzeptu konposatu eta zabaltzeko honen bidez, AMIa hedatu egiten da komunikabideetara, liburutegietara, artxiboetara, museotara, Internetara eta

sare sozialetara, zinemara, etab. Hori kontsolidatu egingo da gero Fezko eta Parisko adierazpenetan.

- 2011 [Fezko Adierazpena](#), Alfabetizazio Mediatiko eta Informazionalari buruzko Nazioarteko lehen Foroa, non herritarrak gaitzeko eta kultura parte-hartzaile eta kulturarteko bat indartzeko funtsezko eskubide gisa aitortzen baita AMIa eta, ondorioz, giza eskubideen nazioarteko legeriaren arlo gisa eratzten baita, nahiz eta inongo itunetan ez den formalki aitortzen.
- 2014. Aro Digitalean Alfabetizazio Mediatiko eta Informazionalari buruzko Parisko Adierazpena. Foro europar honetan arlo mediatiko eta informazionalan lortu beharreko konpetentziei buruzko gogoeta egiten da.

Bere ekintza-eremuari dagokionez, kontzeptua hainbat alfabetizazio modu txertatzen doa, soziala barne, zeinak honako hauek biltzen baititu: kulturarteko

konpetentziak, mundu-herritartasunerako hezkuntza, eta besteren artean, osasunari eta finantzei buruzko oinarritzko ezagutzak eskuratzea.

Une hauetan, UNESCOren arabera, AMIak biltzen dituen konpetentziek honako hauek ahalbidetzen dituzte:

- bilatzea, kritikoki ebaluatzea, komunikabideen informazioa eta edukia kritikoki ebaluatzea, erabiltzea eta aberastea;
- Interneteko erabiltzaile bakoitzaren eskubideak ezagutzea;
- Linean gorrotoa piztearen, berri faltsuen eta zibererasoaren aurka borrokatzeko modua ulertzea;
- informazioa eskuratzearekin eta erabiltzearekin lotutako gaiak ulertzea;
- eta komunikabideekin eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiekin lankidetzan jardutea informazioaren eta edukien sortzaile gisa, berdintasuna, autoadierazpena,

komunikabideen pluraltasuna, etab. sustatzeko.

AMIaren inguruko beste adierazpen eta akordio asko aipatu daitezke, baina UNESCOk azken urteotan garatu dituen mugarri nagusietako batzuk bakarrik nabarmenduko ditugu. Edozein kasutan, [gidalerroei](#) buruzko dokumentuaren Eranskinean azken 40 urteotan AMIaren inguruan egindako gomendio guztiak adierazten dira.

1.2 Arazo kritiko bati emandako erantzuna

Alfabetizazio mediatiko eta informazionalaren premia geroraezina da, informazioaren ekosistema deitutakoa eratzen duten kanal eta plataforma digitalen ugaritasuna dela eta, bai eta hartarako sarbidea bermatzen dutelako eta elkarbanatzeko aukera ere ematen dutelako. Azken urteetako egoera hau kritikoa bilakatu da eta adimen artifizialaren

garapenaren hasiera bete-betean dagoen panoramak ez du larritu besterik egiten.

Nazio Batuak eta Europar Batasuna, besteren artean, desinformazioaren arriskuei hainbat frontetan erantzun bat ematen hasiak dira, komunikabideen gardentasunaren eta ikerketa zorrotzaren sustapenetik hasi eta zerbitzu digitalen erregulaziora edo informazioaren arloan praktika egokien sustapenera iritsi arte. Sustatzen ari diren tresnak ere askotarikoak dira: ekintzarako estrategiak eta planak, legeak, praktika onen kodeak, gaikuntza-programak, proiektuetarako laguntzak, kolektibo jakin batzuekin egindako programak, hala nola gazteekin, adibidez; sariak, etab.

AMLa oinarritzko premia gisa ageri da bizi dugun desinformazio-egoeraren aurrean herritarrak gaitzeko. Sare sozialen erabilera, zenbait komunikabidek hartu duten deriba, zenbait gobernuk eta alderdi politikok duten rola, gehi enpresa jabeek (gutxi batzuk)

kanal horiei dagokienez dute boterea, gizarte-haustura eragin dezakeen haztegi bat sortzen ari dira. Gertakarien eta egiaren arteko tarte hori handitzen ari dela da kezkarria, eta gizartean zabaldutako arrakala sakontzen ari dela.

Hori horrela, desinformazioaren kontzeptuan geratzea komeni da, kontzeptuaren klabeak argituz eta informazioaren integritatearekin konparatuz Nazio Batuek eta Europar Batasunak hazten ari den kezka horren inguruan argitaratutako dokumentuen bidez.

1.2.1 Informazioaren integritatea eta desinformazioa, talkan dauden bi kontzeptu

Informazioaren integritatearen kontzeptuak informazioaren fidagarritasunari, egiazkotasunari, zehaztasunari eta koherentziari egiten dio erreferentzia, herritarrek informazio

horrekin fidatu ahal izatea eraginez. Nazio Batuen erakundea erabat sentsibilizatuta dago gai honekin, eta hainbat txosten eskaini dizkio azken urteetan. Izan ere, Gure Agenda Erkidea deitutako akordioen ezarpena bultzatzeko pentsatutako agendaren markoan landutako politikei buruzko txostenetako bat osorik bideratu zen gai hori jorratzeko (2021). Informazioaren integritatea sustatuko zuen jarrera-kode bat lantzea proposatzen zen txostenean.

Idazkari Nagusiaren txostenak –zenbaiten ustez izugarrizkoa denak– adierazten duenez, ekosistema honen integritaterako arriskuen artean daude okerreko informazioa zabaltzea, desinformazioa eta gorrotoaren diskurtsoa, hiru kontzeptu desberdin eta aldi berean erlazionatutakoak, beren artean bereiztea ere zailak izateraino. Honako hauek dira, oso modu sintetikoak, Nazio Batuek planteatzen dituzten definizioak [Idazkari Nagusiaren politiken 8. txostenean 2023an](#):

- Okerreko informaziotzat hartzen da informazio zehaztugabea nahigabe zabaltzea, informazio hori gezurra hedatzen ari direnez jabetzen ez diren hainbat lagunek partekatzen dutelarik.
- Informazio zehaztugabea baino gehiago da desinformazioa, engainatzeko asmoa du eta kaltea eragiteko zabaltzen da. Berariazko gezurra eta mezu engainagarriak dira.
- Gorroto-diskurtsoei dagokienez, nazioarteko definizio juridiko baten faltan, hitzeko, idazki bidezko edo portaeraren bidezko edozein komunikazio moduri egiten dio erreferentzia, betiere eraso bat bada edo hizkuntza peioratiboa edo diskriminatzailea erabiltzen bada pertsona edo talde batekiko, haien erlijioa, jatorri etnikoa, nazionalitatea, arraza, kolorea, etorkia, generoa edo beste identitate-faktore bat dela eta.

Okerreko informazioaren eta desinformazioaren artean bereiztea

ez da beti erraza izateko, lehenengoa desinformazioan sortu baitaiteke, eta denborarekin eta errepikapenarekin, diskurtso publikoan sartu eta nahigabe hedatzen da. Asmoan dago gakoa, bere helburuan. Desinformazioaren definizio bakar bat ez badago ere, hiru elementu partekatzen dituzte kontzeptura egindako hurbilketek informazioa okerrekoa edo zehaztugabea da, engainatzeko asmoa du eta kalte larri bat eragiteko partekatzen da.

UNESCOk kalte espezifiko bat eragin dezaketen eduki faltsu edo engainagarrien erreferentzia egiteko erabiltzen du terminoa, motibazioak edo kontzientzia (kaltearena) edozein izanik ere. Bestalde, iritzi- eta adierazpen-askatasunerako eskubidearen sustapen eta babeserako Errelatore Bereziak gizarte-kalte larria eragiteko zabaltzen den informazio faltsu gisa definitzen du.

NBEk adierazten duenez, desinformazioaren inpaktuaren larritasuna funtsezko gaitan duen eraginean datza,

hala nola demokrazian eta hauteskunde-prozesuetan, giza eskubideetan, osasun publikoan, klima-ekintzan, genero-berdintasunean, bakean, segurtasunean eta erantzun humanitarioan.

Politiken 8. txosten hori argitaratu ondoren, munduko kontsulta-prozesu bat zabaldu zen, [Nazio Batuen informazioaren integritaterako printzipio unibertsalak](#) eman zituen. Bost dira printzipio unibertsalak: gizarte-sinesgarritasuna eta erresilientzia, pizgarri onak enpresentzat eta iragarleentzat, ahalduntze publikoa, bitarteko independente, libre eta pluralentzako laguntza, gardentasuna eta ikerketa. Gizarte zibileko hainbat agentek, akademiak, komunikabideek, enpresa teknologikoek eta Estatuak parte hartu zuten printzipioen elaborazioan, liburutegiek izandako parte-hartzeaz gain.

Nazio Batuek urteak daramatzate horren aurrean posizio jakin bat hartzen eta [gorrotoaren diskurtsoen](#) aurkako ekinbideetan saiatzen, estrategia

baten eta ekintza-plan propio baten bidez. Ekintza multzo horren barruan erakundeak herritarrentzako gomendio jakin batzuk sustatzen ditu, hala nola [bost neurri](#) informazioaren integritatea hobetzeko: kontuz zer partekatzen duzun, pentsatu irizpide sendo batekin, eskatu erantzukizunak, lagundu hedabide independenteei eta jarri zalantzan diskurtso kaltegarriak.

1.2.2 Posizio europarra

Europa ere ari da desinformazioaren aurka sendotasunez jarduten. 2018ko urtarrilera joan beharra dago. Orduan Europar Batasunak goi mailako aditu talde bat sortu zuen hedabide tradizionaletan eta sozialetan zabaldutako desinformazioarekin lotutako gai guztiei buruzko aholkuak emateko, bai eta ondorio sozial eta politikoei aurre egiteko modu posibleei buruzkoak emateko ere. Lan haren ondorioz [txosten](#) bat egin zuten non desinformazioaren kontzeptua deskribatzen baita. Bertan barne hartzen dira kalte publikoa edo irabazi

asmokoa nahita eragiteko diseinatutako, aurkeztutako eta sustatutako informazio faltsu, lauso edo engainagarriko forma guztiak.

Urte horretako urrian sinatu zen desinformazioaren arloko lehen [jardunbide egokien kodea](#), ondoren [indartuko](#) zena (2022). Bigarren honek, aurrekoaren berrikuspenaren eta hobekuntzaren emaitza izanik, 44 konpromiso dauzka eta 128 neurri espezifiko ondoko gai hauen inguruan: desinformazioaren hedapena desmonetizatzea; publizitate politikoaren gardentasuna bermatzea; erabiltzaileak ahalduntzea; datuen egiaztatzaileekiko lankidetzaren indartzea; eta datuetarako sarbide hobearen txertatzea ikerketan.

Zehazki, erabiltzaileen gaikuntzari dagokionez, zera adierazten du: “desinformazioaren aurka hobeto babestuta egongo dira, hobetutako tresnen bidez. Tresna horiek desinformazioa atzemateko, ulertzeko eta seinaltatzeko dira, iturri baimenduetara sartzeko

eta alfabetizazio mediatikoko ekimenez baliatzeko. Zehazki, Kodeak bere gomendio-sistemetan gardentasun handiagoa bermatzeko eta desinformazioaren hedapena mugatzeko diseinu-praktika seguruak ezartzea bermatuko du, desinformazioaren hedapena mugatzeko helburuarekin behar den heinean sistema horiek egokituz”.

Baina kodeaz gain, EB desinformazioaren aurkako borrokari lotutako beste ekimen asko sustatzen ari da, helburu horretara bideratutako [orrialde](#) batean bilduta. Hainbat gai biltzen ditu: manipulaziotik babesteko aholkuak, hainbat ekimenetarako estekak, berriak, datuak, agiriak eta baliabideak, edo 2015etik aurrera abiarazitako manipulazioaren aurkako ekintzak.

[Alfabetizazio mediatikoari](#) gagozkiola, hainbat ekimen aipatu ditzakegu. Batzordeak aditu talde bat sortu zuen 2015ean, bitan bildu zena. Ildo honetako ekimenen lehen urte horietan, Europar

Ikus-entzunezkoaren Behatokiak Europako alfabetizazio mediatikoko praktika eta ekintzei buruzko [txosten](#) bat egiteko ardura izan zuen, eta bertan 547 proiektu hautatu ziren.

Europa mailan aipatzekoa da, halaber, [kalitatezko informazioa eskuratzea bermatzeko Europako Parlamentuak](#) egindako lana eta, bestalde, bada Europarako [datuak egiaztatzeko arau-sare](#) bat ere. Azkenik, manipulazioaren eta desinformazioaren arriskuaren erakusgarri ona da informazioaren integritatearen alde egiten ari den lana, [eskala diplomatikoan](#) egindakoa, alegia, kanpo-ekintzako zerbitzutik egiten ari dena.

Edozein kasutan, azken hamarkadan egindako ekintzen aurrerapen bat besterik ez dira ekintza horiek. Aurrerago ikusiko dugun bezala, EBko ekimenak ez dira hemen bukatzen.

1.2.3 Desinformazioarekin lotutako beste ekimen batzuk

ELGak ere badu desinformazioari buruzko [baliabide-zentro](#) bat. 2022an *hub* bat eratu zen informaziogune baten integritatea babestera eta indartzera bideratutako gobernantza publikoko neurrien analisia errazteko. Parekideen arteko ikaskuntza-plataforma gisa funtzionatzen du, ezagutza eta baliabideak emanez, eta herrialdeen arteko datuen eta jardunbide egokien trukea ahalbidetzen du.

1.2.4 AMLa eskubideen berme gisa

Adierazitako ekimenen multzotik eta sakontasunetik desinformazioaren arazoaren funtsezko garrantzia ondorioztatzen da. Pertsonen giza eskubideen eta funtsezko askatasunen aurkakoa delako da hain garrantzitsua. Oso interesgarria da Goi Komisionatuaren iritzia, berak sintoma bat bezala ulertzen baitu. “Desparekotasun sistemikoaren

sintoma gisa, non sakonki errotutako diskriminazioak, erakunde gero eta ahulagoek, gobernu-egiturekiko konfiantzaren galerak eta zuzenbide-estatu mugatuak egonkortasuna eta bakezko bizikidetzaren mehatxatzen baitute”.

Diskriminazioarekiko, indarkeriarekiko, osasunaren galerarekiko, edo hondamendi naturalekiko edo hauteskunde-prozesuekiko eragiten dituen ondorioek funtsezko eskubideen galera eragiten dute. Baina, erne, izan ere haren aurka egiteko bulkadak iritzi-askatasuna edo adierazpen-askatasuna murriztera eramanez baititzaizake Estatuak. Are gehiago, lausengu erretrikoak ikusten ditugu eztabaida publikoan, non askatasunaren aldeko argudioak azalduz nahita desinformatzen baitira herritarrak. Dialektika makiaveliko eta inozo honek, atxikimenduak sortzen ditu, nahiz eta jakin ez dela egiazkoa, eta funtsezko eskubideak urratzen dituela. *Tour de force* gogor bat da adierazpen eta iritzi askatasunerako eskubidearen eta informazioa eskuratzeko eskubidearen

artean, nahiz eta ez luketen zergatik kontrajarri behar.

“Pertsona orok libreki adierazteko aukera izan behar du, erasoak jasateko beldurrik gabe. Pertsona orok hainbat ikuspegi ea informazio-iturri ezagutzeko aukera izan behar du”. António Guterres.

NBEko Idazkari Nagusiaren [Txostenak](#) eztabaida hau argitzen du hainbat argudio emanez. Adierazten duenez, desinformazioaren hedapenari emandako erantzunek pertsonen adierazpen-askatasuna sustatu eta babestu behar dute, bai eta informazioa bilatzeko, jasotzeko eta hedatzeko askatasuna ere [Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak](#) (19. art.) eta [Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak](#) (1. paragr., 19. art.) ezartzen duten bezala.

Halako arazo baten konponbidea honetan datza: informazioarekiko


eskuragarritasuna, AMIa sustatzea eta enpresen lankidetzaz erraztea. Elcano Errege Institutuko Ángel Badillok adierazten duen bezala, “funtsezkoa da hezkuntza mediatikoa hobetzea, kalitatezko komunikabideak indartzea eta plataforma digitalei erantzukizuna eskatzea. Garrantzitsuena zera da, hartzen dugun edozein neurrik beti adierazpen-askatasuna errespetatzea, hori baita demokrazien oinarria”.

Horrek erantzukidetasunean oinarritutako herritarren jarrera-aldaketa bat eskatzen du, herritar emantzipatuak zentzu kantiarrean, eta beren kabuz pentsatzera eta jokatzera ausartzeko gaituak. AMIa pentsamendu kritikoko gaitasunak hobetzeko tresna gisa, giza eskubideetan oinarritutako planteamendu bat eusteko zutabeetako bat izango da.

1.3 AMIa ekosistema baten zati gisa

AMIak eragile publiko eta pribatuaren espektro zabal eta askotarikoa interpelatu du, komunikabideak, hezkuntza edo kultura, eta horiei gehitzen zaizkie eduki digitalak sortzen eta banatzen diren zerbitzuak, plataformak eta sare sozialak. Horrek guztiak ekosistema komunikatibo eta mediatiko kualitatiboki berria eratzen du.

Esparru honetan eta kontuan hartuz alfabetizazio mediatikoaz ari garela, erakunde eta eragileak gauzatzen ari diren programa eta ekintzak hiru jardueraren sektore edo eremutara bideratzen dira batez ere: komunikabideak, ingurune digitala eta hezkuntza.



Nahiz eta azterlanaren ardatza liburutegien papera izan, interesgarria da bat datozen beste eremu hauetan dauden ekimenak ezagutzea, gai honetan liburutegien zerbitzuek egin dezaketen ekarpen saihestezinagatik.

Atal honetan hiru eremu handi hauetan gehien nabarmentzen diren jarduketak laburbiltzen dira. Logikoa denez, badira haien arteko bidegurutzeak edo intersekzioak, eta programetako batzuk elkar gainjarrita daude.

Multzo-ikuspegi batetik, UNESCOk AMLaren inguruan gauzatzen duen ekintzak hiru bloke handitako planteamendu hau gainditzen duen ekimen-espektro zabala biltzen du, izan ere, haietako bakoitzean parte hartzeaz gain, [jarraibideak](#) dauzka politika eta estrategia nazionalak prestatzeko eta AMLari buruzko [mundu mailako adierazle-esparru](#) baten artikulazioa sustatzen du. Bi txostenek esparru kontzeptual sendo eta osatua biltzen dute, eta nahitaezkoak dira AMLaren irismena eta inplikazioak ulertzeko, ikuspegi holistiko batetik. Zentzu honetan, kontzeptuan sakontzeko gida osatuak dira. Egin daitekeen objekzio edo eragozpena zera da, 2013an eginak daudenez, haien planteamenduak neurri batean xaloak izatea azken urteotan jasaten dugun desinformazioaren bilakaeraren aurrean. Testuinguruan izan den txarrerako joerak eta parte hartzeko premiak, aurreko atalean komentatu diren Nazio Batuen dokumentuen larritasuna ekarri dute.

Gainera, beste jarduketa batzuen artean, UNESCOk hainbat sustapen-ekimen dauzka, hala nola AMLaren [munduko astea](#), sariak, hitzaldiak edo [AMI hiriak](#). Azken ekimen hau 2018an garatu zen Lituaniako eta Letoniako Munduko Astea ospatu zen garaian, gai honekin: “Hedabideetan eta informazioan alfabetizatutako hiriak: aldaketaren ahotsak, botereak eta protagonistak”.

Horrela beraz, jarraian aztertzen diren sektore jakin batzuetara bideratutako proiektu eta programez gain, UNESCO da erreferentziazko erakundea honako gai hauen arloan: maila guztietan AMLaren inguruko esparru kontzeptuala, jarraibideak, eta estrategia eta politiketarako orientabideak. Hainbat formatutan eskuragarria den eta AMLarekin lotutako gai mota guztiak hartzen dituen dokumentazio-banku bat dauka.

1.3.1 Komunikabideak

Europako komunikabideen esparru arautzailea [Ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuen zuzentaraua \(AVMSD\)](#) da. 2022ko berrikuspenak alfabetizazio mediatikoaren papera indartzen du, Estatu kideei alfabetizazio mediatikoko gaitasunak garatzeko neurriak sustatzea eskatzen baitie (33 bis artikulua). Bideoen truke-plataformak ere behartzen ditu, izan ere, alfabetizazio mediatikoko neurri eta erreminta eraginkorrak eskaintzera behartzen baititu. Baldintza erabakigarria da hori, ikus-entzunezko edukietarako sarbidean plataforma horiek jokatzen duten funtsezko papera dela eta. Plataformak ere behartuta daude erabiltzaileak neurri eta erreminta horien inguruan sentsibilizatzea (28 hiru. artikulua).

Zuzentarau horretatik eratorritako betebeharrak baten zati gisa, Estatu kideek aldiro Batzordeari [txosten](#) bat aurkeztu behar diote, non alfabetizazio mediatikoko gaitasunak sustatzeko eta garatzeko

neurriak azalduko dituzten. Txostenek hainbat neurri biltzen dituzte: legislatiboak eta normatiboak, antolamenduzkoak, finantzazio publikokoak, sentsibilizazio-neurriak, partaidetzakoak eta ikasketa-planak maila guztietan. Dokumentu zabalak dira eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak egindako [Espainiari dagokion txostenean](#) estatuan eta autonomia mailan egindako mota guztietako jarduketak xehatzen dira.

Komunikabideen askatasuna eta pluraltasuna babestera, komunikabideen erresilientzia handitzera eta alfabetizazio mediatikoa hobetzen laguntzera bideratutako laguntzei dagokienez, 2024an 16 milioi euro bideratu ziren Europa Sortzailea programaren esparruan, hiru laguntza-deialditan banatuta. Horietatik, europarren [alfabetizazio mediatikoko gaitasunak](#) hobetzen laguntzen duten mugaz gaindiko proiektuetara eta desinformazioaren inpaktu kaltegarria mugatzera 2,5 milioi euro bideratzen dira.

Alfabetizazio mediatikoaren sustapenerako ekimen nabarmenetako bat alfabetizazio mediatikoko [Aste Europarra da](#), UNESCOrekin koordinatuta gauzatzen dena. Esparru horretan egin zen 2024an Media literacy matters [Konferentzia](#), bai eta Sarien deialdi bat ere.

Azkenik, eremu mediatiko honetan punta-puntakoa da Baliabide Digitalen Europako Behatokiak ([EDMO](#)) alfabetizazio mediatikoaren alde gauzatzen duen lana. Desinformazioari aurre egiteko lan egiten duen komunitate independenteari laguntzen dion proiektua da, eta datuen eragile egiaztatzaileen, akademiaren eta alfabetizazio mediatikoko pertsona adituen arteko topagune gisa dihardu. Gai honen inguruan hainbat motatako orientabide, [gida](#) eta baliabide eskaintzeagatik nabarmentzen da, aurrerago ikusiko dugun bezala. Baliabide-banku zabal bat dauka non txostenak herrialdeka, argitalpen zientifikoak, egiaztapen-entitateetarako estekak, eta abar, kontsultatu daitezkeen.

Azterlan hau ixteko [IBERIFIER](#) proiektua nabarmentzen dugu, Espainiako eta Portugalgo bitarteko digitalen Behatokia, Europako Batzordeak bultzatutakoa eta EDMOra lotua. Nafarroako Unibertsitateak koordinatzen du eta proiektuan hamabi unibertsitatek parte hartzen dute, bost egiaztapen-erakundek eta albiste-agentziak, eta diziplina anitzeko sei ikerketagunek. Desinformazioari aurre egitera bideratutako Europar Batzordeak onartutako 8 behatokietako bat da.

Puntu hau ixteko gure inguruan zabaltzen ari diren alfabetizazio mediatikoari emandako sariak ere aipatu daitezke ([Cadena Ser eta UN Etxea, Alejandro Echevarria sariak](#)), bai eta, horniduraren garrantziagatik, Eusko Jaurlaritzak bigarren urtez adimen artifizial generatiboaren inpaktua minimizatzeko komunikabideei ematen dizkien [laguntzak](#) ere. 7 milioi euroko aurrekontuarekin, deialdi hori aipatzen dugu, izan ere, desinformazioari aurre egin nahi diolako eta proiektuen balorazio-irizpideetan AMLa kontuan hartzen delako.

1.3.2 Plataforma eta eduki digitalak

Alfabetizazio mediatikoa beharrezkoa baino gehiago den eta bazterrezina den bigarren eremu handia inguru digitala da. Teknologia eskaintzen dituen aukerek eta bidesariek gaur egunean bizi gareneko komunikabideen ekosistema baldintzatzen dute. Horregatik ari dira Nazio Batuak, UNESCO eta Europar Batasuna, informazioaren integritatearen aldeko lanean, eduki-sortzaileentzako eta plataforma digitalentzako funtzionamendu-jarraibide espezifikoak arautzen eta adosten.

Mundu-eskalan, UNESCOk 2023an argitaratu zituen [Plataforma digitalen gobernantzarako gidalerroak](#), alderdi interesdunen arteko konpromiso elkarbanatu batean oinarrituta, adierazpen-askatasuna eta informaziorako sarbidea babestera zuzenduak. Gidalerro horiek kontsulta-prozesu zabal baten emaitza dira, non 134 herrialdek eta 4.000 eragilek baino gehiagok parte hartu duten. Giza

eskubideak errespetatzen dituen eta edukien moderaziorako eta sendaketarako sistemetan oinarritutako arriskuak murrizteko prozesuak sustatzen dituen gobernantza-sistema bat deskribatzen dute. Adierazpen-askatasuna eta informaziorako sarbidea eraginpean hartzen duten gobernantza-sistema guztietan jarraitu behar diren printzipio zuzentzaileak ezartzen dituzte, erregulazio mota espezifikoak eta ikuspegi tematikoa edozein delarik ere. 5 printzipiotan oinarrituta daude, horien funtsa giza eskubideak direlarik, eta honako hauetan bete behar dira: plataformen diseinuan, edukien sendaketan eta moderazioan, pertsona erabiltzaileen eskura dauden erremintetan eta informazioan, bai eta beren kontu ematean eta gardentasunean ere.

Bestalde, Nazio Batuen erakundea gogotik ari da lanean gizakia ardatz duen etorkizun digital ireki, libre eta seguru baterantz aurrera egiteko printzipioak, helburuak eta neurriak ezartzera bideratua egongo den [Itun Digital Global](#) batean. Etorkizun hori

guztionez izango da, giza eskubide unibertsalean oinarritua eta Garapen Jasangarrirako Helburuak eskuratzea ahalbidetuko duena. 2024ko irailean egindako Etorkizuneko Gailurrean onartu zen eta haren emaitza nagusietako bat da. Etorkizunerako Itunari atxikita dago. Itun Digital Globalean itun hori lortzeko proposatuko diren helburuak, printzipioak, konpromisoak eta ekintzak adierazten dira, hori guztia nazioarteko zuzenbidean oinarrituta.

Europari dagokionez, plataforma digitalen funtzionamendua arautzeko ahalegin normatibo bat egiten ari dela nabarmendu beharra dago. 2022an esparru legegile bat onartu zuen honako hauek bilduz: zerbitzu digitalen legea, publizitate politikoaren gardentasunari eta segmentazioari buruzko ekimena eta desinformazioaren arloko jardunbide egokien kodea.

[Zerbitzu digitalen legeak](#) erabiltzaileen funtsezko eskubideak babesteko gune digital seguruago bat sortzea du helburu.

Neurri horrekin, Europar Batasunak esparru juridiko moderno bat onartu zuen, honako hauek lortzeko: lineako erabiltzaileen segurtasuna bermatzea, gobernantza funtsezko eskubideen babesa lehen planoan jarritz ezartzea, eta lineako plataforma-ingurune bidezko eta irekia edukitzea.

Arau-aurrerapen horietaz haratago, eremu digital honetan nabarmentzekoa da hainbat erakundek zibersegurtasunaren inguruan egiten duten alfabetizazio-lana, hala nola Zibersegurtasuneko Institutu Nazionalak, [INCIBE](#) erakundeak, adibidez, herritarrei, kolektibo espezifikoari eta adin txikikoei zuzenduak.

1.3.3 Hezkuntza

Hezkuntzaren eta herritarren gaikuntzaren eremuan, bi dira AMLarekin lotuta kontuan hartu behar diren gaiak: ikaskuntza iraunkorrera lotutako konpetentzia-esparruak eta, espezifikoari, irakasleei

zuzendutako konpetentzia digitalak eta gaikuntza-ekintzak, egiaztapen-entitate espezializatuak garatzen ari diren hezkuntzara bideratutako gaur egungo materialez gain, besteren artean.

Konpetentziak multzo bat dira, ezagutzen (kontzeptuak eta egitateak), trebetasunen (gaitasunak) eta jarrerren multzo bat. Konpetentzia gakoei dagokienez, erreferentzia europarra, alde batetik, [Ikaskuntza Iraunkorrerako Konpetentzia Gakoen Esparrua](#) da, zeinak norbanakoaren garapen laborala, pertsonala eta herritarra gidatzeko funtsezko konpetentziak ezartzen baititu, herritarrak gizarte arloan osorik parte hartu ahal izan dezan, gizarteratze-ikuspegi batetik, herritartasun aktiboa eta bizitza osasungarria eta jasangarria batekin. Konpetentzia digitala 2018ko berrikuspenean barne hartu zen bere konpetentzia gakoetako bat bezala.

Konpetentzia digitalek gaur egun duten zeregin erabakigarria kontuan hartuz, Europa eguneratzen etaosatzen joan da

[DigComp herritarrentzako Konpetentzia Digitalen Esparru Europarra](#), gai honetan nazioartean dagoen erreferente nagusietako bat izanik. 2013an argitaratua, bere eredu kontzeptuala aldatzen joan da (2016) bere [egungo 2.2 bertsiora](#) iritsi arte (2022), eta eguneratze bat egitea aurreikusita dago 2025eko amaierarako. Lehenetsitako bat Batzordearentzat.

Esparru honek teknologiak erabiltzen laguntzeko eta haien erabilera kritikoa modu seguruan egiteko ezagutza, trebetasun eta jarrerren 250 adibide baino gehiago ematen ditu. AMLako konpetentzien adibideak gaineratu dira konpetentzia digitalen esparruaren zati gisa. Adimen artifizialaren, errealtate birtualaren eta areagotuen, eta robotizazioaren gisako teknologien aurrerapenaz gain, sare sozialen erronken eta desinformazioaren areagotzearen ondorioz gertatu zen eguneratze hori, herritarren alfabetizazio digitaleko premia berriak sortu baitituzte. Eredua 5 konpetentzia-arloz osatua dago:

1. Informazioaren eta datuen bilaketa eta kudeaketa. Alfabetizazio informatibo eta mediatikoko konpetentziak dira, egiazko informazioa aurkitzeko. Helburua zera da, nondik sar daitekeen jakitea, iturri fidagarriak aurkitzea ahalbidetuz eta kudeatzen ikasiz.
2. Komunikazioa eta lankidetzak: zerbitzu digitalen eta teknologia egokien erabileraren bidez gizartean parte hartzea erraztu nahi du.
3. Eduki digitalak sortzea: eduki digitalak sortzen eta editatzen eta egile-eskubideak eta baimenak nola aplikatu behar diren ikasten erakutsi nahi du.
4. Segurtasuna: online inguruneetan gailuak, edukiak, datu pertsonalak eta pribatutasuna nola babestu behar diren erakusten du. Baita osasuna nola babestu, teknologiez egiten den erabileraz jabetzea eta ingurumenean duten inpaktuaz ere jabetzea.
5. Arazoen ebazpena: premia eta arazoak identifikatzera

bideratua, online inguruneke arazo kontzeptualak eta egoera problematikoak ebatzi ahal izanez.

DigCom esparrua da alfabetizazio digitala itxuratzeko oinarri amankomuna. Hainbat xederekin aplika daitekeen konpetentzia-hiztegi amankomun bat sortzea izan da helburua, hala nola hezkuntza-politikak formulatzea, hezkuntza-helburuak ezartzea, eta irakaskuntzaren plangintza, ebaluazioa eta gainbegiraketa. Badira herritarrei bideratutako bertsioak (DigComp), hezkuntza-erakundeetara bideratuak (DigCompOrg) eta kontsumitzaileentzakoak (DigCompConsumers). 2016an goimailako hezkuntzako erakundeen irekierarako esparru bat ere argitaratu zen (OpenEdu), ekintzailetzarako konpetentzia-esparru batekin batera (EntreComp). Esparru hauetako batzuek autoebaluazioko tresnak ere badituzte.


Hezkuntza maila guztietako irakasleen gaikuntzara bideratutako Esparru

bat dago, formalaz kanpoko edozein ikaskuntza-testuinguru barne hartuz [DigCompEdu](#). Konpetentzia digitaleko ereduaren garatzaileei erreferentzia-esparru orokor bat ematea da haren helburua, bai Estatu kideak izan, bai eta eskualdeko gobernuak, nazioko edo eskualdeko agentziak, hezkuntza-erakundeak edo edozein entitate, publiko edo pribatu, prestakuntzara bideratuta dagoena.

Azken batean, funtsezko tresna da EBko herritarren alfabetizazio digitalaren helburuak lortzeko eta alfabetizazio digitaleko europar ziurtagiri bat garatzeko. DigComp 2.2. Estrategia Digital Europarreko politika digitalak formulatzeko erreminta nagusitzat hartzen da.

Hezkuntzara bideratutako UNESCOren ekimenei dagokienez, nabarmentzekoak dira [AMletako ikasketa-planen gidalerroei](#) buruzko munduko arauak, garapen jasangarriko helburuak lortzeko alfabetizazio mediatiko eta informazionalera egindako ekarpenen

inguruan zentratuak, 10 printzipiotatik abiatuta eta AMLaren 5 lekeen arabera:



Geuk egindako lanketa Alton Grizzle eta Jagtar Singh-tik abiatuta.

Gainera, UNESCOren programen barruan, hezkuntza-eremuarekin lotuta nabarmentzekoak dira halaber irakasleentzako [curriculumak](#), unibertsitate-sare bat eta AMLari buruzko nazioarteko [informazio](#) zentro bat, Nazio Batuen Zibilizazioen Aliantzarekin lankidetzan.

Bere argitalpen eta ekintzen artean, gazteriari bideratutako ekimenak nabarmentzen ditugu, irriti-formatuko irakasleentzako materialak adibidez, edo lineako eta partaidetza masiboko lineako ikastaroak ([MOOC](#)), pertsona gazteei herritar kritiko

bihurtzeko alfabetizazio mediatiko eta informazionalako funtsezko konpetentziak ematen dizkietenak. Gazte-erakundeentzako alfabetizazio mediatiko eta informazionalako gaitasunen garapenerako ekimen esperimental bat ere zuzentzen du, bai eta alfabetizazio mediatikoko eta informazionalako konpetentziei gazteek ematen dieten erantzunari buruzko lotutako ikerketa ere. Nabarmentzekoa da, halaber, sare sozialetako [MIL CLICKS](#) mugimendua, plataforma hauek erabiltzen dituzten pertsonei bideratua.

Hezkuntza-zerbitzuetara bideratutako proiektuei dagokienez, zera aipatu beharra dago, proiektu horiek *Associació Verificat* edo Fundación Maldita gisako egiaztatze agente eta elkarteek edo banku-fundazioek eta komunikazio-talde handiek ere gauzatzen dituzten proiektuen jasotzaileak direla. Badira, halaber, sektoreen artean elkartuta, zerbitzu edo proiektu mota hau eskaintzera bideratutako enpresak ere. Lau adibide aipatzeagatik,

- [EduCaixa, El laberinto de la información](#), 8 eta 12 urte arteko haurrei bideratua, irakasleentzako nahiz familientzako materialekin.
- [Amibox-Aula](#), Atresmedia Fundazioarena, irakasleentzako gida interaktibo bat ikasleen konpetentzia mediatiko informazionalak eta digitalak lantzerantz zuzendua. Fundazioaren datuen arabera, Espainiako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen % 37k kontsultatu du.
- [Gaptain](#). Bizkaian kokatutako enpresa, hezkuntza eta teknologia binomioa lantzen duena, inpaktu sozialeko soluzioak diseinatuz, eta alfabetizazio mediatikoko proiektuetan askotan saritua.
- [Nafarroako Gobernu](#)ko Hezkuntza Sailak hitzarmen bat itxi du IBERIFIERekin lehen hezkuntzako hirugarren zikloan AMLa sustatzeko.

Eta, azkenik, AMLari eta hezkuntza-zerbitzuei zuzendutako apartatu hau ixteko, Sozialisten Parlamentuko taldearen

ekimenez Diputatuen Kongresuan eztabaidatzen ari den ikus-entzunezko hezkuntzaren errefortzu-estrategia baten diseinurako Legez besteko Proposamen bat aipatu beharra dago. Beren komunikazio-kode propioa duten ikus-entzunezko edukien bidez transmititzen diren gero eta eduki gehiago daudenez, gobernuari hiru jarduketa-ildotan lan egitea eskatzen diote, helburu hauekin:

- irakasleei zuzendutako ikus-entzunezko eta zinemako hezkuntzako prestakuntza eta didaktika sustatzea,
- ikastetxeei ikus-entzunezko alfabetizazioan laguntzeko asmoz autonomia-erkidegoen zinema-akademiekin akordioak aztertzea,
- eta hezkuntza profesionalen eta ikus-entzunezko adituen talde bat sortzea plataforma bat abiarazteko, irakasleak didaktikan eta ikus-entzunezko narratiban prestatzeko baliabideak eta ikus-entzunezko materialaren hautaketa bat edukiko dituen.

2. Liburutegien papera

Behin nazioz gairik erakundeetan AMLaren kontzeptua eta esparru orokorra, eta egungo ekosistema komunikatiboaren osotasunean daukan egoera azaldu ondoren, kapitulu honetan liburutegiekin duen harremana jorratzen da eta liburutegiek AMLaren garapenean duten paperaren inguruko gogoeta egiten da.

2.1 Liburutegi publikoen papera

2.1.1 Liburutegi publikoen funtzioa: eskubideak, sarbidea eta ezagutza

Digitalek eratorritako premiak liburutegien funtzio oinarritzat txertatzeari egindako begirada ebolutibo batetik, [Liburutegi publikoari buruzko manifestura](#) (1994) jo beharra dago, *International Federation of Library Associations and Institutions* (aurrerantzean IFLA) eta

UNESCOk landutakoa. Horretan honela definituta ageri da: “informaziogune bat bere erabiltzaileei informazio eta ezagutza mota oro eskuratzen diena”. Sarbide-berdintasuna ezartzen du zerbitzu hauen oinarri gisa eta, bere helburuen artean, informazio-gaitasunaren eta informatikako oinarritzatko nozioen hobetzea laguntzea espresuki aipatzen du; bai eta alfabetizaziorako programa eta jarduerak laguntza ematea ere. Liburutegi publikoek betetzen dituzten funtsezko printzipioen deklarazioa irudikatzen duen dokumentu baten hirugarren bertsioa da hau.

Ondoren, 2001ean, [Manifestuaren](#) bertsio berri bat argitaratu zen, non iraultza digitala deitutako zerbitzu hauetarako dakarren funtsezko aldaketa txertatzen baita. Orduan izan zen hainbat gaitan sakondu zen unea: arrakala digitala, etengabeko ikaskuntza, alfabetizazioa, informaziorako sarbidearen

aldaketa, garapen pertsonal kreatiboa, liburutegi publikoaren funtzio soziala, liburutegiaren horrez gairik zerbitzuaren kontzeptua edo informazio-askatasuna.

Bere zerbitzuak planteatzerakoan, zera adierazten da, “ez dute inolako presio ideologiko, politiko, erlijioso edo komertzialenpean egon behar. Gizartean sortzen diren aldaketen erritmoan eboluzionatzeko eta egokitze prest egon behar dute, adibidez, familia-egituren aldaketak, enplegu-jarraibideak, aldaketa demografikoak, aniztasun kulturala edo komunikazio-metodoak. Kultura tradizionalak eduki beharko lituzkete kontuan, bai eta teknologia berriak ere, adibidez, ahozko komunikazio-metodoak laguntza emanez eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia erabiliz”.

Manifestuaren bertsio berrienean adierazten denez, 2022an egina, funtsezko giza balioak (gizartearen askatasuna, oparotasuna eta garapena) “beren eskubide demokratikoak baliatzeko eta gizartean zeregin aktibo bat gauzatzeko ondo informatutako herritarren gaitasunaren bidez lortu ahal izango dira bakarrik. Demokraziaren partaidetza eraikitzailea eta kontsolidazioa hezkuntza egoki baten mende daude, bai eta neurri berean ere, ezagutzarako, pentsamendurako, kulturarako eta informaziorako sarbide libre eta mugarik gabekoaren mende ere.

Liburutegi publikoa, ezagutzen sartzeko eskura daukagun herriko ataria, oinarritzko baldintza da bizitza osorako ikaskuntza baterako, erabakiak modu independentean hartzeko eta pertsonen eta gizarte-taldearen kultura-garapenerako. Ezagutzaren gizarte sendoa bultzatzen ditu, eta mota orotako ezagutzen sorkuntza eta trukea ahalbidetzen du. Liburutegiek ezagutzaren gizarteetan eta komunitatearen bizitza kulturean hezkuntzarako eta partaidetzarako eskubideak ahal den

pertsona gehienentzat eskuragarriak izatea bermatzen laguntzen dute”.

Azken batean, berrikuspen honek zera islatzen du, ezagutzaren gizartea (eskuratu, ekoitzi, sortu eta elkarbanatu) eta garapen jasagarria sustatzen eta zaintzen dituen liburutegi bat. Nabarmentzekoa da liburutegien zerbitzuaren funtsa honetan datzala, kulturarako, prestakuntzarako eta informaziorako eskuragarritasun parekidea. Hori da erdigunea eta hortik abiatuta eraikitzen du AMLaren garapenean duen papera eta egiten duen ekarpena.

2.1.2 Liburutegi publikoak eta AMIa

AMIarekiko liburutegiek duten paperean sakontzen badugu, nabarmentzekoak dira IFLAren oinarritzko bi erreferentzia, bata bere misioarekin lotutakoa, eta bestea, desinformazioarekin lotuta duen papera:

- IFLA (2022) [Manifestuak](#), bere gako-misioen artean adierazten ditu: “alfabetizazio-jarduerak eta irakurketarako eta idazketarako

konpetentziak indartzeko programak bultzatzea, eustea eta parte hartzea, eta alfabetizazio mediatiko eta informazionalaren garapena eta gutiontzako trebetasun eta alfabetizazio digitala erraztea”.

- Albiste Faltsuei buruzko IFLAren [Adierazpenak](#) (2018) azaltzen duenez, “Liburutegiek konpromiso instituzional eta etikoa daukate erabiltzaileei informazio fidagarri eta benetakoa eskuratzen laguntzeko. Zeregin hori inoiz baino garrantzitsuagoa da berri faltsuak hazten ari diren fenomeno bat bihurtu diren garai batean”. “Alfabetizazio informazional eta mediatikoa garatzeko liburutegien ahalegin aktiboek informazio-iturrien sinesgarritasuna eta egokitasuna modu kritikoan ebaluatzen lagundu diezaiekete herritarrei”.

Bereziki adierazgarria da [IFLak NBEren Informazioaren Integritatearen printzipioei](#) egiten dien ekarpena (2023), non liburutegiak konponbidearen zati direnaren

idea azpimarratzen baita. Ez dira nahikoak esku-hartze, manifestu edo zuzentarau handiak, baizik eta erkidegoekin lan egingo duen azpiegitura instituzional bat eduki beharra dago. Liburutegiak, zentzu honetan, kaleko mailan daude. Adierazten dute, halaber, beharrezkoa dela jarrera positiboa edukitzea, orokorrean, Internetekiko eta teknologiarekiko. Horretarako beharrezkoa da sarea gardena izatea eta arau argiekin jokatu dezala, baina horrez gain pertsona erabiltzaile gaituak eta fidakorrak ere behar dira. Funtsezkoa da, halaber, informazioa ez bakarrik eskuragarria izatea, ulertu ahal izateko modukoa izatearen zentzuan, baizik eta hartara iristeko modukoa ere izan behar du.

Azpimarratzen dute halaber liburutegiak eta kazetariak aliatu naturalak direla, lehenengoak datuak egiaztatzeko base naturalak diren zentzuan. Oso kontuan hartu beharreko beste ideietako bat pertsonetan jakin-mina eta pertsonen adierazpen-gaitasuna sustatzea da, desinformazioaren aurka borrokatzeko landu beharreko erremintak izaki. Eta

amaitzeko, liburutegiak aurreko atalean deskribatutako ekosistemaren zati direla nabarmentzen da. Horrek funtsezko agenteen artean sinergiak sortu daitezkeela eta sortu behar direla inplikatzeko du.

Bukatzeko, liburutegiek AMIa garatzeko izan duten presentzia etengabea izan da urteetan zehar. IFLAk, ekosistema horren zati denez, aktiboki parte hartu du Nazioa Batuek eta UNESCOk bultzatutako ekimenetan, hala nola [Alfabetizazio mediatiko eta informazionalerako aliantza globalean](#), liburutegi publikoek eta haien erakunde elkartuek modu kontzertatuagoan lan egin dezaten adin guztietako herritarrei laguntzeko bitartekoetan eta informazioan alfabetizatuagoak izateko beharrezkoak diren ezagutzak, abileziak, jokabideak eta jarrera etikoak bereganatzeko.

Europar, [Europako Parlamentuak eskatutako 2016ko azterlan batek](#) gomendatzen zuen liburutegiei laguntzea alfabetizazio mediatikoa hobetzeko duten potentziala aprobetxatzeko, haien potentziala, haien baliabide-premia, eta

nazioarteko erakundeekin eta liburutegi-arloko erakundeekin ezarri beharreko lankidetzaren premia azpimarratuz.

Edozein kasutan ere, kontuak izanda NBEk informazioaren integritatearen [Printzipioei](#) buruzko dokumentuan ematen duenaren arabera Estatuek informazioaren integritateari dagokionez dituzten betebeharrak, printzipio horiek informaziorako sarbidea ematearekin eta alfabetizazioarekin lotuta, liburutegiak azaltzen direla, hezkuntza-sare formalarekin batera, helburu horiek lortzeko egokienak eta posizio hobean dauden zerbitzu publikoetako bat bezala, konfiantzazko guneak baitira non edozein pertsonak konpetentzia mediatiko eta informazionalak eskuratu ditzakeen.

Eta zergatik liburutegiak? Leku seguruak direlako, bizitzan zehar ikasteko guneak, komunitatearekin lotutakoak eta berrikuntzako guneak. Liburutegiak horrelako konpetentziak garatzeko duten esperientzia, baita beren komunitateetara heltzeko eta ikaskuntzako aukera

inklusiboak eskaintzeko duten gaitasunak pribilejiozko postuak kokatzen ditu pertsona gehiagori alfabetizazio mediatikoko abileziak garatzen laguntzeko.

Badira haratago joan eta honako hau ere esaten dutenak: “hamarkada berrirako lehentasunak instalazioen, kudeatzeko moduen eta liburutegi-zerbitzuen eraldaketa digitalari modu irmoagoan aurre egitea izan behar du, ezen, kultura-zerbitzuek eta irakurketa sustatzeko zerbitzuek garrantzitsuak izaten jarraitzen badute ere, norberaren eta erabiltzaileen gaikuntza digitalari modu inklusibo eta parte-hartzailean aurre egitea funtsezkoa da liburutegiek arrakala sozial eta digitalak murrizten lagundu dezaten, baita informaziorako eskubidea benetan egikaritzen ere” Romero-Sánchez et al. (2021).

2.2 Laguntza-programak eta proiektuak

Europa osoari dagokionez, nabarmentzekoa da alfabetizazio mediatikoko [mugaz haraindiko proiektuen deialdia](#) / Europako etorkizun digitala konfiguratzea, helburutzat alfabetizazio mediatikoko praktikei buruzko ezagutzen trukea sustatzea duena, baita praktikak zabaltzea ere muga nazionaletan, kulturaletan eta linguistikoetan barrena.

2,5 milioi euroko zuzkidura dauka, eta proiektu bakoitzak 500.000 euroko gehieneko zenbatekoa eskatu dezake bi urteko proiektu baterako. Kostuen guztizkoaren % 70 da baterako finantzaketako gehieneko ehunekoa.

Programa honen bidez lagundutako proiektuak aurkeztuz gero, honako hau ikusten da:

- Gazteei eta seniorrei zuzendutako proiektuak presentzia nabarmena dute.
- Teknologia ugari erabiltzen da, hala nola Errealitate Areagotuaren,

gamifikazioaren eta bideo-jokoen kasuan.

- Aipatzeko modukoa da Estatuko erakundeen presentzia eta lidertza, eta hor ageri dira, besteak beste, *Associació Verificat*, Maldita Fundazioa, UNED, Konplutentsea, Zaragozako Udala, Octaedro argitaletxea, edo *Associació cosicosa*.

Liburutegien kasuan, nabarmentzekoa da [IFLAK](#) 2020. urteaz geroztik parte hartzen duen proiektu bat, [Tactical Tech](#) GKEarekin batera. The [Glassroom](#) proiektua da, hasiera batean Estoniako, Irlandako, Lituaniako eta Herbehereetako europar liburutegien talde baten partaidetzarekin, ondoren liburutegietako profesionalen [elkartek](#) gehitu zaizkielarik. Europako liburutegi publikoen bidezko murgiltze-erakusketak eta prestakuntza barnean hartzen ditu proiektuak, gai jakin batzuk ardatz gisa hartuta, hala nola desinformazioa, datuen pribatutasuna eta bitartekoen jabetza.

Tactical Tech erakundeak beste proiektu bat ere sustatzen du IFLAren batera, kasu honetan *Save the Children* eta *Associació Verificat* elkarteekin, beste hainbat erakunderen artean, [Data detox kit](#) izeneko.

Edozein kasutan ere, bor-bor dagoen gaia dela dirudi, AMLari buruzko nazioarteko zenbait proiektutan parte hartzeko prest dauden [liburutegien bila](#) baitaibiltza.

IFLAK parte hartzen du halaber [AMLaren europar astean](#). Azken edizioan Georgiako eta Kroaziako liburutegietako arduradunak parte hartu zuen Bruselan izandako biltzarrean, bi adibide konkretu jartzearen.

2.3 Erremintak, baliabideak eta gaitasunak

Bi ikuspegi hartu behar dira kontuan AMLaren eta liburutegien inguruko gaitasunak aipatzean: liburutegietako langileak eraginpean hartzen dituztenak eta liburutegi horietako zerbitzuetan

sartzen diren pertsonetan eragiten dutenak. Liburutegietako zerbitzuetako buru diren pertsonen zuzendutako egungo eskaintza izango dugu aztergai atal honetan.

Lehenik, bibliotekonomiaren eta dokumentazioaren arloko prestakuntzari dagokionez, ikasketa-planetak ardatz tematiko nagusia da AMLa. Edozein kasutan ere, konpetentzia horiek ez dituzten langileentzat edo eguneratze bat behar dutenentzat, elkarte profesionalak (IFLA, *American Library Association*, FESABID, ALDEE) AMLari buruzko edukiak barne hartzen ari dira beren prestakuntza-programetan. Horrela, adibidez, ALDEEK eta beste elkarte profesional batzuk, Maldita Fundazioarekin lankidetzan, liburutegietako langileei zuzendutako [ikastaroak](#) antolatu dituzte.

FESABIDI dagokionez, aipatzekoa da Kultura Ministerioak bultzatutako kultura-eskubideei buruzko planari egiten dion ekarpenean espresuki aipatzen dela

liburuzainak AMLan prestatzeari buruzko premia. Federazioak liburutegi publikoek funtsezko zerbitzu unibertsal gisa duten rola indartzearen aldeko apustua egiten du, bereziki gunen pobretuenetan, hala nola landa-eremuen, hiri-aldorien eta herri hustuen kasuan. Liburutegi publikoa, hurbileko zerbitzu unibertsal eta doakoa denez, eta bere funtsezko eta oinarritzko izaera kontuan izanik, betiere berdintasuna bermatuz, irisgarria izango da nahitaez herriar guztientzat, inolako oztoporik gabe. Ekarpene horretan nabarmentzekoa da, beste zenbait ekintzaren artean, jasangarritasuna, etengabeko prestakuntza (alfabetizazio digitala barne) belaunaldi arteko harremanak eta komunitate-kohesioa sustatuko dituen kudeaketa profesional bat ziurtatzeko premia.

Liburutegietako profesionalen gaikuntzan nabarmendutako beste ekimenetako bat DIBA [Bartzelonako liburutegien sareak](#) eskaintzen duen zerbitzua da, Learn to Check elkarteak eta

komunikazio- eta informazio-arloko aditu batek zuzendutakoa eta gidatutakoa, esperientziak partekatzeko eta herritar guztiengana iristeko modu eraginkorrak testatzeko helburuarekin, eta, bereziki, erabiltzaile pobretuen taldeengana eta normalean alfabetizazio mediatikoko prestakuntza batean motibatuta egongo ez liratekeen balizko erabiltzaileengana iristeko. Prestakuntza eta ikaskuntzarako baliabideak eskaintzen dizkie sareko liburutegietako langileei. Zerbitzu aitzindaria da arlo horretan.

Liburutegi-zerbitzuetan espezializatutako enpresek ere (Baratz enpresak, esaterako) AMLari buruzko eskuliburuak, gidak eta ikastaroak dituzte eskueran beren webguneetan, baita gai horri buruzko informazioa ere bere [blogean](#).

Bestalde, AMLan gaikuntza izateko proiektuak daude hezkuntza-arloko profesionalentzat, zenbait erakundek – [UNESCOk](#) adibidez – sustatutakoak eta EBk finantzatutakoak, orientagarriak ere izan daitezkeenak liburutegietako langileentzat.

Formatuei dagokienez, [hezitzaileentzako gidak](#), podcastak eta [irrat-formatuak](#) ageri dira. Europan ere badira arlo horretan konpetentzia digitalei edo [gaitasunei](#) lotutako prestakuntza-ekimen ugari, haietako asko linean irekitako ikastaro masiboen formatuan ([MOOC](#)).

Azkenik, eta liburutegietan espezializatutako atari bat ez bada ere, nabarmentzekoa da EDMO Bitarteko Digitalen Europako Behatokiak eskaintzen duen edukia, bere [gidetan](#) zein [ekimenetarako](#) gidetan. Gordailuak dituzte halaber [herrialdeen](#) arabera eta [prestakuntza](#)-programak.

2.4 AMLarako europar itun baterantz

Puntu honetara iritsita eta kontuan izanda liburutegi publikoen funtzioa berez uztartzen dela AMLaren helburuarekin, egin beharrekoa zera da, egungo komunikazio-ekosistemaren barruan liburutegiek herritarren alfabetizazio mediatikoko

funtsezko agente gisa duten rola ordenatzen saiatzea..

Ikusi dugu liburutegiak alderdi hirukoitza dutela, eta horren ondorioz posizio egokian daudela AMLa herritarren artean sustatu eta bultzatzeko.

1. Liburutegiak leku seguru eta fidagarri gisa, liburutegi-zerbitzuak ematen diren gune fisikoaren zentzuan (leku erosoak dira, patxadazkoak, ondo ekipatuak, atseginak, klima-babesleku gisa ere funtzionatzen dutenak ingurumen-baldintza txarretan) zein zentzu birtualean, non erabiltzaile asko sarera konektatzeko sartzen diren, sareko kalitatezko zerbitzu digitalak erabiltzeko, fidagarritasunez eta erosotasunez. Desinformazioaren eta gorroto-mezuen bidez lortu nahi denaren antitesia dira ezaugarri horiek. Horrenbestez, posizio egokian uzten ditu kontrako ingurune komunikatibo eta mediatikotik babesteko konfiantzaz eta segurtasunez, eta

Europako [Demokraziarentzako Ezkutua](#) deitutakoarekin lotzen ditu. Horixe da alfabetizazio mediatikoaren aldeko apustua desinformazioaren aurkako funtsezko erreminta gisa.

2. Liburutegiak ikaskuntzarako eta ezagutzarako gune gisa, jendea bertara irakurtzera, kontsultatza, informazioa jasotzera, jolastera, ikastera, eztabaidatzera eta ikastera joango delarik. Liburutegiak funtsezkoa rola du eskola formala iresten ez den lekuan. Liburutegiak ez dira soilik liburuak, aldizkariak, prentsa, filmak eta entziklopediak, eta, horrekin batera, irakurketa-klubak, ezagutza eta irudimena transmititzeko jarduerak, eta konpetentzia digitalak eskuratzeko baliabide-zentroak ere badira. Ezaugarri horiek zenbait estrategiarekin lerrokatzen dituzte liburutegiek, hala nola aipatutako etengabeko ikaskuntzako konpetentzien eta konpetentzia

digitalen markoekin eta Europako [gaitasunen aldeko batasuna](#) estrategiarekin.

3. Liburutegiak berdintasunezko sarbidea duten zerbitzu gisa, inklusioaren aldekoak eta hurbilekoak diren tokiak, mundu guztia bertan berdin tratatua izango delarik eta edonork bertan toki bat izango duelarik. Lurraldean gehien banatutako zerbitzuak dira eta demokratikoenak. Unibertsalak eta doakoak. Edozeinek erabiltzaile-txartela lortu ahalko duen lekua. Sozializatzeko eta herritarrek gozatu dezaten prestatutako guneak dira, komunitatea egiten dutenak. Ezaugarri horrek [Eskubide sozialen Europako zutabearekin](#) eta kohesio-politikekin uztartzen ditu.

Itun bat zergatik planteatzearen galdera erretorikoari dagokionez, berezko erantzunak ekosistema askotariko eta plural bat ordenan

jartzeko premiaren erreferentzia egiten du, non, UNESCOk planteatzen duen legeen arteko lehenengoari jarraikiz, “informazioa, komunikazioa, liburutegiak, komunikabideak, teknologia eta Internet... Berdinak dira garrantzian eta bakar bat ere ez da besteak baino gehiago nabarmendu behar”. Kementsu ari dira horretan, bereziki azken urteetan. Estrategia, programa, gida, eta abar, ugari daude. Baina sentsazioa da gerrilla-ekintzak ari direla egiten, auziari alderdi askotatik ekinez aldi berean.

Edozein kasutan ere, itun batek gobernantzari lotutako elementuak ere bildu behar ditu, are gehiago deskribatutakoa bezalako ekosistema konplexu batean, beharrezkoak diren baliabideak bildu behar ditu profesionalak gaitzeko eta erronkari erantzuteko gai diren zerbitzuak eskaini ahal izateko, eta AMIaren arloan ikertzera eta berritzera bideratutako alderdiak ere hartu behar ditu kontuan.

Illo horretan, eta berriz ere [UNESCOri](#) jarraikiz (27. eta 28. orrialdeak), hori

lortzeko kontuan hartu daitezkeen politikarekin lotutako lau alderdi daude. Adostasunak lortu behar dira; erronkei aurre egin; baliabideak mobilizatu, beharrezkoak diren ezagutza espezializatuak barne, eta ekintza-plan argi bat garatu.

1. Adostasunari dagokionez, garrantzitsua da “zeharkako politika” marko bat proposatzea, alfabetizazio mediatiko eta informazionala gobernantza publikoaren hainbat arlotan integratuko duena, eta gizarteko beste sektore esanguratsu batzuetako protagonistak ere inplikatuko dituena.
2. Erronkei dagokienez, adostasuna sortzeko eta ekimenetan parte hartzeko oso garrantzitsua da zehaztea zein diren alfabetizazio mediatiko eta informazionalaren onura demokratiko, pertsonal, sozial eta ekonomikoak. Garrantzitsua da, halaber, elkarren onerako diren

aliantzak, praktikak eta proiektuak garatzea.

3. Baliabideak beharrezkoak dira eta hainbat mailatan hartu behar dira kontuan. Mikro mailatik makro mailaraino doan guztia hartu behar da barnean, eta finantza-baliabideak eta espezializatutako ezagutzak kontua hartu AMLako programak egiteko.
4. Jarduketa eraginkorrak egiteko ekintza-plan xehatu bat behar da.

3. Ondorioak

40 urte dira gizarteak komunikazio-fenomenoak alfabetizazio mediatiko eta informazionalaren bidez ulertu beharraren premia planteatzen hasi zenetik. Ez da, hortaz, fenomeno berria. Kontua da orain funtsezko garrantzia duela, ekosistema mediatiko erabat desberdina eta konplexua eratu izanaren ondorioz gertatu den aldaketa kualitatiboarekin. Hori berresten dute zenbait erakunde bultzatzen ari diren ekimen eta txostenek, hala nola Nazio Batuen, UNESCOren eta Europar Batasunaren kasuan. Hori horrela, funtsezko gaia da funtsezko eskubideekin duen loturarengatik eta gizateria eraginpean hartzen duten garrantzi erabakigarriko gaietan duen inpaktuarengatik.

Desinformazioak kezka eragiten du, zatikatutako gizartearen sintoma denez. Nazio Batuen txosten gogorrek kezka horren adierazgarri dira. Ahalegin handiak ari dira egiten deriba ustel

eta kaltegarri horri erantzuteko. Ildo horretan, alfabetizazio mediatiko eta informazionalako kontzeptua bera aldatu egin da. Hizkuntza berri bat ikasteko gaitasun gisa ulertzetik aurkako ingurune batean moldatzeko gai izatera igaro gara; informazioa eskuratzeko bitarteko bat gehitzetik egiazko informazioa bahetzeko, hautatzeko eta erabiltzeko irizpide nahikoa izatera.

Sapere aude lelo ilustratu zaharra puripurian dago gaur egun. “Ausartu zaitez pentsatzera eta pentsatu irizpide sendoekin” esaldiak biltzen du gaur egun AMLak gizarte garaikidean duen zentzua. Lelo horren hasiera eta amaiera adierazpen- eta iritziz-askatasuna dira, eta informazioa bilatzeko, jasotzeko eta hedatzeko askatasuna.

AMLa sustatzeko gida, orientabide, programa eta baliabide asko eta asko daudela ikusi dugu. Ekintza gidatu behar

duten jarraibideak eta orientabideak daude. Nazioz gaindiko erakundeak buru-belarri ari dira lanean gai horretan, eta komunikabideetan ari dira jardunean, arlo digitala ordenatuz, eta hezkuntza-arloko ekintzak eta konpetentziak bideratuz.

Liburutegiak IFLAren bidez parte hartu dute AMLaren inguruko garapen kontzeptual eta normatiboan. Izan ere, oinarritzko osagaia dira prozesu horretan eta desinformazioaren arazoari eman beharreko soluzioaren zati dira. Eta ezagutzarako atariak direlako egiten dute, gertukoak, hurbilekoak eta seguruak. Fidagarriak. Irisgarriak. Beste zerbitzu publiko batzuk iristen ez diren lekura iristeko gaitasuna dute. Kulturarako, prestakuntzarako eta informaziorako berdintasuneko sarbidea ematea, horretan datza ematen duten zerbitzua. Hori da erdigunea eta hortik abiatuta eraikitzen du AMLaren garapenean duen rola eta egiten duen ekarpena.

Alor horretan ekintza ordenatze eta egituratze aldera, beharrezkotzat jotzen da alfabetizazio mediatikorako europar itun baten proposamena, desinformazioaren erronkaren handitasuna, ekosistema mediatikoaren konplexutasuna eta modu bateratuan jarduteko premia kontuan izanda. Makro arloan ari dira lanean (zuzentarauak, printzipioak, aliantzak, arauak, eta abar), eta mikro arloan ere badira AMLako zenbait proiektu (proiektuak, sareak, laguntzak, edukiak, eta abar). Itun batek ahaleginak bateratzen lagunduko luke, eta honako hauek lortzera bideratu beharko litzateke:

- AMLari buruzko partekatutako ikaskuntzarako gune bat sortzea. Hainbat ekimen daudela kontuan izanda (behatokiak, konpetentzia-markoak, baliabideak, eta abar), gune erkide bat izateak lana erraztuko luke.
- Programak garatzea eta aplikatzea. Egun dauden laguntzetan sartu ahalko da, profesionalek gaitzeko programa berriak sustatu eta programa horien

garapenari buruz orientazioa eman. Berrikuntza funtsezko berme-puntua izan liteke arlo horretan.

- Beste agente batzuekin partekatzea eta harremanetan jartzea. Ekosistemaren zabaltasuna eta AMLaren garapenean jada lanean ari diren agenteen aniztasuna ikusi da. Liburutegiak ere haien artean daude. Hainbat sektoretako agenteen arteko topaketa-jardunaldiak antolatzea, eta haiek lokalizatzeko baliabideen gidak izatea lehen pausoa da partekatutako proiektuei ekiteko.

Alfabetizazio mediatikorako ituna formulatzean orientabide izan daitezkeen funtsezko elementuak sintetizatuko ditugu ondoren.

1. AMLaren inguruko politika bat. Hainbat eskubide bermatzeko beharrezkoa den erreminta bat dela nabarmentzea da kontua, hala nola pertsonen adierazpen-askatasunaren, iritzi-askatasunaren, eta informazioa

bilatzeko, jasotzeko eta hedatzeko askatasuna. NBERen Idazkari Nagusiaren txostenek ezinbesteko argumentuak eskaintzen dituzten alor horretan.

2. Jarduketak ordenatzeko markoa. Ikusienez, azken urteetan AMLaren inguruko hainbat jarduketa izaten ari dira maila guztietan. Itun batek akordio bat eta konpromiso bat inplikatzeko ditu. Adostasunak bultzatzen ditu. Hori horrela, agenteen eta jarduketaren askotariko mapa ordenatzen lagundu dezakeen erreminta bat da.
3. Ekosistema kualitatiboki berria. Egungo panorama mediatiko eta teknologikoa osatzen duten askotariko sektoreetako agente publiko eta pribatuen multzoa hartzen du eraginpean AMLak. Haien eraginak, etengabeko bilakaerak eta konplexutasun normatiboak beren funtzionamendua sakon ezagutzea eskatzen du herritarrei ekosistema horretan moldatzeko moduko

konpetentziak emango dizkieten ekintzei ekiteko. Hezkuntza-sistemak eta liburutegiak ondo kokatutako zerbitzu publikoak dira funtzio alfabetizatzaile hori egikaritzeko, beren izateko arrazoi propioari datxekiena ezagutzen sartzeko giltzarri gisa.

4. Programak eta proiektuak.

AMlaren inguruan egiten ari diren programak eta proiektuak ezagutzen lagundu dezake itun batek.

AMlako proposamenak ugaritzen hasi dira hainbat testuinguruan, haietako batzuk liburutegien parte-hartzearekin. Haien helburuak eta emaitzak ezagutzea abiapuntu egokia izan liteke itunaren oinarriak zehazteko.

5. Baliabideak. Politika batek aurrekontuak eskatzen ditu. Marko horretan, eta kontuan izanda AMla desinformazioa murrizteko erreminta gisa hartzen ari den lehentasuna, badira zenbait laguntza-programa horrelako proiektuak bultzatzeko.

Liburutegiek beste agente batzuekin berdintasun-egoeran parte-hartzeak baliabide nahikoak behar ditu, horrenbestez.

6. Gaikuntza eta konpetentziak.

Europar Batasunak konpetentziak garatzeko lan handia egin du, elkarte profesionalak liburutegien inguruan egiten ari diren lanaz gain. Lan horri laguntza eskaini behar zaio eta indartu egin behar da ezagutza hori zerbitzu horien buru diren pertsonengana iristeko moduan.

7. Ekintzak. Desinformazioak eta herritarren alfabetizazio mediatikoko premiak planteatzen dutena bezalako erronka batek ekintza-plan bat behar du. Jarduketak zabaldu behar dira hedapenaren, gaikuntzaren eta prestakuntzaren inguruan, jarduketa horietan zer egiten den eta nork egingo duen ezarrita. Helburuak ezarriko dituen eta ebaluatu ahalko den ekintza-plan bat. AMlaren arloan ekintza gidatuko duen ibilbide-orria izango den plan bat.

8. Partekatzea. Adierazi dugunez, agente ugarik osatzen dute AMlaren garapen-markoa. Itun bat egiteko premisa gai horren inguruan informazioa eta baliabideak partekatzeko gogoia da. Erakunde publikoek jarrera hori bultzatu dezakete enpresen eta hainbat sektoretako zerbitzu publikoen artean partekatutako proiektuak sustatuz, eta horixe ari dira egiten, hain zuzen ere.

9. Berritzea. Garapen teknologikoak berrikuntza dakar. Bitarteko horietan alfabetizazioari dagokionez erronketarako planteatzen duen erantzunak berritzailea behar du izan nahitaez.

10. Gobernantza. Ekosistema bat zenbat eta konplexuagoa izan, bere gobernantzarako mekanismoak ezartzeko premia handiagoa planteatzen du. Plataformei eta zerbitzu digitalei zuzendutako mundu osorako zein Europarako gidalerroak eta orientabideak daude. AMlaren

inguruko itun batek estrategia
gidatuko duen gobernantza-sistema
bat ezarri beharko du.

Ondorio gisa, AMLaren inguruko politika bat
garatzen lagunduko du itunak, funtsezko
lau alderdi integratuz: adostasunak
lortzea; erronkei erantzutea; baliabideak
mobilizatzea; eta ekintza-plan argi bat
garatzea.

Bibliografia

American Library Association (2020). Media literacy in the library. A guide for library practitioners. Helbide honetan eskuragarri:

https://www.ala.org/sites/default/files/tools/content/%21%20Media-Lit_Prac-Guide_FINALWEB_112020_0.pdf.

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala (2024). 2020-2022 aldian Espainian garatutako alfabetizazio mediatikoko neurriei buruzko txostena. Helbide honetan eskuragarri:

<https://www.cnmc.es/sites/default/files/5318689.pdf>.

EDMO (2024) Guidelines for Effective media Literacy Initiatives. Helbide honetan eskuragarri:

<https://edmo.eu/areas-of-activities/media-literacy/raising-standards-the-edmo-guidelines/>.

European Comission (2018). A multi-dimensional approach to disinformation Report of the independent High level Group on fake news and online disinformation. Directorate-General for Communication Networks, Content and Technology. Helbide honetan eskuragarri:

<https://op.europa.eu/en/publication-detail/-/publication/6ef4df8b-4cea-11e8-be1d-01aa75ed71a1/language-en>.

European Comission (2022) Vuorikari, R., Kluzer, S. and Punie, Y., DigComp 2.2: The Digital Competence Framework for Citizens. Helbide honetan eskuragarri:

<https://publications.jrc.ec.europa.eu/repository/handle/JRC128415>.

European Parliament (2016) HUYSMANS, F., Research for cult committee-Promoting media and information literacy in libraries. Helbide honetan eskuragarri:

[https://www.europarl.europa.eu/RegData/etudes/IDAN/2017/573454/IPOL_IDA\(2017\)573454_EN.pdf](https://www.europarl.europa.eu/RegData/etudes/IDAN/2017/573454/IPOL_IDA(2017)573454_EN.pdf).

IBERIFIER (2023). Analysis of the impact of disinformation on political, economic, social and security issues, governance models and good practices: the cases of Spain and Portugal. Helbide honetan eskuragarri:

<https://iberifier.eu/2023/06/21/report-analysis-impact-disinformation-june-2023/>.

IFLA (2021). Coming in 2021: a public library manifesto for today (and tomorrow). Helbide honetan eskuragarri:

<https://www.ifla.org/node/93780>.

LABBBS bibliotecarios (2023). Liburutegian ikastea. Liburutegi-koordinazioko zuzendariordetza nagusia. Helbide honetan eskuragarri:

https://labsbibliotecarios.es/wp-content/uploads/2023/05/LABBBs_Aprender-en-la-biblioteca_Digital_interactivo.pdf.

Nazio Batuak. (2022). Desinformazioari aurre egitea giza eskubideak eta funtsezko askatasunak sustatzeko eta babesteko. Idazkari Nagusiaren txostena. Helbide honetan eskuragarri:

<https://docs.un.org/es/A/77/287>.

Nazio Batuak (2021). Gure Agenda Erkidea - Idazkari Nagusiaren txostena. Helbide honetan eskuragarri:

<https://www.un.org/es/content/common-agenda-report/>.

Nazio Batuak (2023) Gure 5. Agenda Erkideko politiken txostena. Itun Digital Global bat – etorkizun digital ireki, libre eta seguru bat pertsona guztientzat. Helbide honetan eskuragarri:

<https://www.un-ilibrary.org/content/papers/10.18356/30052440-28>.

Nazio Batuak (2023) Gure 8. Agenda Erkideko politiken txostena. Informazioaren integritatea plataforma digitaletan. Helbide honetan eskuragarri:

<https://www.un-ilibrary.org/content/papers/10.18356/30052440-31>.

Nazio Batuak (2024) Nazio Batuen printzipio globalak informazioaren integritaterako. Gomendioak alderdi interesdunen ekintzarako. Helbide honetan eskuragarri:

https://www.un.org/sites/un2.un.org/files/integridad_informacion_principios_universales.pdf.

Pérez Tornero, J.M. (2009). Study on the current trends and approaches to media literacy in Europe. Helbide honetan eskuragarri:

<https://www.gabinetecomunicacionyeducacion.com/es/proyectos/study-current-trends-and-approaches-media-literacy-europe>.

Olmo y Romero, Julia Alicia (2019) Desinformación: concepto y perspectivas. Elcano Errege Institutua. ARI 41/2019. Helbide honetan eskuragarri:

<https://www.realinstitutoelcano.org/analisis/desinformacion-concepto-y-perspectivas/>.

Pérez Femenía, E., Iglesias-García, M. (2022). Luces y sombras de la alfabetización mediática en el sistema educativo español. *VISUAL REVIEW* | 2022 | ISSN 2695-9631 *International Visual Culture Review* / *Revista Internacional de Cultura Visual*. Helbide honetan eskuragarri:

<https://doi.org/10.37467/revvisual.v9.3745>.

Sádaba, C. eta Salaverría, R. (2023). Combatir la desinformación con alfabetización mediática: análisis de las tendencias en la Unión Europea. *Revista Latina de Comunicación Social*, 81, 17-33

<https://www.doi.org/10.4185/RLCS-2023-1552>

Romero-Sánchez, Eduardo; Hernández-Pedreño, Manuel; Gómez-Hernández, José-Antonio (2021). *Función social y digital de las bibliotecas públicas en España tras la crisis económica y sociosanitaria: perspectivas y retos*. *El Profesional de la información*, 30. b., 5. zk., e300510.

<https://doi.org/10.3145/epi.2021.sep.10>

UNESCO (2011) Alfabetizazio Mediatiko eta Informazionala: Irakasleentzako curriculum. Helbide honetan eskuragarri:

<https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000216099>.

UNESCO (2024) Behind the Screens. Insights from Digital Content Creators. Helbide honetan eskuragarri:

<https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000392006>.

UNESCO (2023). Plataforma digitalen gobernantzarako gidalerroak. Helbide honetan eskuragarri:

<https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000387360>.

UNESCO (2024) Gidalerro operatiboak. UNESCOren Alfabetizazio Mediatiko eta Informazionalako Hiriak eraikiz. Helbide honetan eskuragarri:

https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000391748_spa.

UNESCO (2013) Media and Information Literacy. Policy and Strategy Guidelines. Helbide honetan eskuragarri:

<https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000225606>.

UNESCO (2022). Alfabetizazio mediatiko eta informazionalako ikasketa-planak egiteko gidalerroei buruzko munduko arauak. Helbide honetan eskuragarri:

https://www.unesco.org/sites/default/files/medias/files/2022/02/Global%20Standards%20for%20Media%20and%20Information%20Literacy%20Curricula%20Development%20Guidelines_ES.pdf.

UNESCO (2024) User empowerment through Media and Information Literacy responses to the evolution of Generative Artificial Intelligence (GAI). Helbide honetan eskuragarri:

<https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000388547?posInSet=2&queryId=d7ca3f61-df9e-4f80-8682-70c77538ecab>.